

Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia

Mikel Aizpuru Murua
Euskal Herriko Unibertsitatea

1936ko azaroaren 30ean hasi zuen Euskal Armadak Espainiako Gerra Zibilean egindako erasoaldi garrantzitsu bakarra, Arabako Legutio inguruan. Ekintza hori, dena den, porrot handiarekin amaitu zen. Lan honetan borrokari buruzko zenbait datu zehaztu dira, hala nola elkarren aurka aritu ziren soldaduen kopurua eta izandako bajak; baina bereziki, porrot horretan eragina izan zuten zenbait faktore aztertu ditugu.

GAKO-HITZAK: Espainiako Gerra Zibila · Euskal Herria · Legutio · Historia militarra.

The main attack that the Basque Army did in the Spanish Civil war was around the 30th of November, 1936, in the surroundings of Legutiano, Araba. This attack, nonetheless, ended in a great defect. This report gives some information about the fight, data about the number of soldiers fighting and the dead soldiers. The report also evaluates some factors that caused the defect.

KEY WORDS: Spanish Civil War · Basque Country · Villarreal de Álava · Military history.

Jasotze-data: 2008-11-11. Onartze-data: 2008-11-11.

1. Sarrera¹

1936ko Gerra Zibila euskal historiografiako izarretako bat da, Franco hil ondoren, zenbait lekukok beren testigantzak argitaratu zituzten eta hurrengo hamarkadan makina bat argitaratu zen, horietako asko Gerra Zibilaren hasieraren 50. urteurrena zela eta. 1990eko hamarkadan, aldiz, lan gutxiago kaleratu ziren, baina agiritegi eta iturri gehiago erabiltzeko aukera izan zuten. Azkeneko urteetan, Frankismoak gauzatutako errepresioaren eta 70. urteurrenaren harira, gaiak bultzada berri bat jaso du (Pablo, 2003). Bi dira garrantzi berezia hartu duten arloak: errepresioa eta gerraren garapen militarra. Ez dut gehiegi aipatu errepresioaren kontua, gaiari buruzko lan batzuk argitaraturik baitaude; asko argitaratu dira 2006an eta oso garrantzitsuak izango dira 1936tik aurrera gertatu zena ulertzeko.

Arlo militarri dagokionez, fenomeno berri bat gertatu da. Frankismo osteko lan akademiko gehienek alde batera uzten zuten kontu hau, eta jorratu zutenek historialari militarrek egindako liburuak hartu zituzten erreferentziatzat. Ezaguna da, garai hartako historiografiak ez zuela aintzat hartzen historia militarra. Historialari militar berriek (Howard, Keegan, Seidman, Fussell-ek besteak beste), ordea, erakutsi digute posible dela gerraren ikuspegi berriak jorratzea. Bestalde, zenbait agiritegi irekitzeak edota lehendik irekita egon arren, orduan erabiltzen hasteak, ezagutzen ez genituen sailetara heltzeko aukera eman digute. Euskal Herriaren kasuan, Guillermo Tabernilla eta Julen Lezamiz (2002) izan dira bide horien urratzaileak. Horiei esker, hobeto ezagutzen hasi gara 1936ko Espainiako Gerra Zibilaren atal ugari. Dena den, lan berri horiek, badute, nire ustez, gabezia bat; hots, datu berri asko eskuratu arren ez dira behar beste jorratu, eta bereziki, ez da nahiko ahalegin egin inguruarekin konparatzeko. Gabezia horrek, hain zuzen, eraman nau lan hau idaztera, ez hainbeste datu berriak ekartzeko asmotan, badakit hainbat agiritegi begiratu gabe utzi ditudala eta ez dut landu ahozko historia; baizik eta ditugun datuak hobeto ulertzen lagunduko digula uste dudalako.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak Gerra Zibilean egindako erasoaldi handi bakarra aztertu dut, 1936ko azaroaren 30ean hasi zen Legutioko erasoaldia, hain zuzen. Ahaleginaren porrotak eta berorren neurri eta arrazoiek gerraren ibilbidean eragin nabarmenak izateaz gain, ilundu egin zuten egun haietako gertakizunen kontakizuna eta oroitzapena. Horren erakusgarri oroigarriekin gertatu dena: Matxitxako aurrean *Nabarra* itsasontziaren urperatzea ia-ia garaipen moduan ospatzen jarraitzen badute Bermeoko abertzaleek, eta arrantzale haien aldeko oroigarria urtero gurtzen dute Gaztelugatxe inguruan; baina inor gutxi hurbiltzen da, Euzko

1. Mikel Aizpuru, Garaiko Historia Saila, Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Sarriena auzoa, Leioa Bizkaia, 946012309 E-mail: mikel.aizpuru@ehu.es

Lan honen jatorria 2001. urtean Legutio herrian eman beharreko hitzaldia da. Orduan bertan behera geratu zen, baina hurrengo urteetako irakurgaiek animatu ninduten gaia berraztertzea eta hartutako oharrekin ikerketa berria egitera. Manex Goihenetxe historialaria eta UEUko lehen zuzendaria hil zenean, euskal erakunde batek haren omenezko liburua kaleratzeko asmoa agertu zuen eta lan hau bidali nien, 2005eko azaroa zen. Arrazoi ezezagunen ondorioz asmo hura ez da oraindik gauzatu eta hona hemen *Uztaron* nire lana. Historialariok jarrera kritikoa izan behar dugula entzun nion Manexi 1987an ezagutu nuenean eta ziur naiz gustura ikusiko zuela espiritu hari eusten saiatu naizela lan honetan.

Abertzale Ekintzako kideez gain, Albertiako maldetara, eta inork ez ditu dagoeneko zaintzen alde batak zein besteak altxatutako oroigarriak.

Lana egiteko, erabilitako bibliografiaz eta agiriez gain, garrantzi berezia izan du Internetek, Gerra Zibilaren gaiak lagun asko erakartzen baititu. Bi dira arreta merezi duten eztabaida-zerrendak: lehena, gce@tinet.org (Espainiako Gerra Zibilari buruzko zerrenda), bigarrena, <http://miarroba.com/foros/ver.php?foroid=838359>, Euskal Herriari buruzkoa. Azken hori itxi egin zen, baina merezi du nabarmentzea. Bietako kideek eskuzabaltasun osoz iradokizun eta informazio ugari ematen dute gerraren bilakaerari buruz eta esker ona zor diegu gerra lantzen dugun guztiok.

Legutioko erasoaldiari buruzko bibliografia

Frankistak izan ziren, hasiera-hasieratik, beren garaipena ospatzeko, gertakizunen nondik norakoak idazteari ekin ziotenak. Lau dira, gutxienez, gure eskuetara heldu diren idazlanak. Lehena, garaipenaren lehen urtebetetzearen aurretik Emilio Enciso Viana-k idatzitako *Villarreal: su cerco y defensa*. Lau urte geroago eta Espainiari buruzko serie baten barruan Víctor Ruiz Albeniz-ek, "El Tebib Arrumi" ezizenarekin *En Álava hubo un Villarreal* argitaratu zuen. 1949an Martínez Esparza jeneralak, *Ejército* aldizkarian, idazlan luzea eskaini zion "El sitio de Villarreal de Álava" izenburupean. Ezagutzen dugun azkena, beste militar batek, Vicente San Millán Martín komandanteak, idatzi zuen 1965ean "Villarreal: defensa y contraataque gloriosos: (noviembre-diciembre de 1936)". Militarren lanetan gai teknikoak nagusitzen dira eta bi aurrenekoetan epika. "EL Tebib Arrumi"renean, gainera, oker eta exajerazio ugari daude.

Lau egileek lerro berari jarraitu zioten, Jaurlearitzaren indarren nagusitasuna eta gaitasun teknikorik eza, diziplina falta eta koldarkeria. Defendatzaileak, aldiz, gutxi ziren, baina trebeak, agintari egokiekin eta balorea gainezka zutela: «Se le ha comparado con Verdún, pero yo creo que Villarreal ha sido más que Verdún; porque no había más que un puñado de hombres con un valor a toda prueba» (Enciso Viana, 1937: 93).

Erasoa hasi eta berehala jaso zuten laguntza bigarren mailan azaltzen da, ez zuten azpimarratzen, besteak beste, hegazkinen babeseta eta bitxikeria moduan, bajak zenbatzean kontaketa berezia egiten dute, hots, errepublikazaleen bajen berri ematean denak (sektore osoa) hartzen dituzte kontura, 4.500 inguru. Matxinatuenak kontatzean, aldiz, Legutiokoak bertakoak bakarrik aipatzen dituzte, 255. Jarrera hori are nabarmenagoa da Legutioko erasoaldia zeharka aztertzen duten egileen kasuan².

Esanguratsua da, halaber, eta garai berrien lekuko agian, 1973an Jesus Iribarrenek idatzitako *Nota histórica de Villarreal de Álava* liburuxkan ez dagoela gerrari buruzko aipu bakar bat baino: «Después del doloroso paréntesis de 1936-1937, que no es preciso de escribir, la villa está llamada a nuevo esplendor». José Manuel Martínez Bande (1980), Francoren garaiko militarra izan arren, operazio

2. Manuel Aznar-ek, adibidez, errepublikazaleek 73 galdi blindatu zituztela esan zuen, eta Alonso Vega-k, aldiz, zutabe txiki bat (Aznar, 1940: 298-304).

militarrak objektibotasunez eta zehaztasunez deskribatzen saiatu zen, nahiz eta, behin baino gehiagotan, matxinatuen aldeko jarrera gailendu.

Franco hil ondoren argitaratutako historia-lanek ez diote arreta berezirik eskaini Legutioko erasoari. Errepublikaren alde borrokatu zutenek ez diote eskaini aparatuko lanik beren testigantzetan; hala ere, maiz aipatu da, eta Francoren garaian —aldi hartako agiriak eta oroimenak berreskuratzeko ahaleginean— Luis Ruiz de Aguirre-k hainbat lan jaso zituen Legutiori buruz. Gerren historia baztertu duten historialari akademikoen artean Legutioko ofentsibak ez du oihartzunik izan. 1979an kaleratzen hasi zen *Historia general de la guerra civil en Euskadi* entziklopediak ez dio atal bat ere eskaintzen; Carmelo Garitaonaindiak eta José Luis de la Granja-k (1987) zuzendutako *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después* liburuan gauza bera gertatzen da. Iñaki Egañaren (1998-2000) *1936. Guerra Civil en Euskalerría* izeneko lanean toki gehiago du. Bi dira Legutiori arreta eskaini dioten historia-lanak, biak, gainera, gerrako beteteranoek bultzatuta. Bata 1991n, gutxi gorabehera, Pablo Beldarrainek idatzitako *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*, eta bestea José Antonio Urgoitik zuzendutako *Crónica de la Guerra Civil de 1937-1937 en la Euzkadi peninsular* izenekoaren bigarren tomoa (2002). Ez bata, eta ez bestea, ordea, ez dira saiatzen galdera berriak egiten eta erantzuten. Bitxikeria moduan aipa dezagun, 1987an Hernández Palacios marrazkilariak *Gorka gudari* komikia argitaratu zuela eta bertako gai nagusitzat Legutioko erasoaldia aukeratu zuen. Akats batzuk izan arren —oraindik egin gabeko urtegia azaltzen da, adibidez—, ondo erakusten du bertan bitzako giroa.

Gerra Zibilak Araban izandako bilakaerari buruzko ikerketek bialdi desberdin izan dituzte. Lehena 1986 inguruan, 50. urteurrenarekin batera, matxinatuen lehen mugimenduak eta erakunde publikoen antolaketa aztertzeraz zuzendu ziren (Rivera, 1988 eta Ugarte, 1990). Azkeneko urteetan, beste arlo batzuk aztertu izan dira, Txema Flores-ek Araba Gerra Zibilean bere osotasunean aztertu du (2002), baina iturri gutxi erabili ditu. Koldo Azkuek Arabako iparraldean izandako bilakaera jorratu du 2004an eta, tamaina txikiagoko lana izan arren, 2005ean, gerra-garaian Arratzu-Ubarrundiako udalerrian izandako bilakaera aztertu du Hugo Huidobro-k. Gerra Zibilaren azterketan ikuspegi eta, bereziki, iturri berriak landu dituen Sancho de Beurko elkarteak Arabako fronteari buruzko liburu bat iragarri zuen bere web orrian, baina oraindik lehen zatia, Legutioko erasoaldia artekoa baino ez da kaleratu³.

Gerraren lehenengo egunak Legution

Ezaguna denez, gerraren lehenengo egunak nahaste handikoak izan ziren; Gasteiz, Iruñea eta Donostiako militarrek uztailearen erdialdera matxinatu ziren, baina ez zen gauza bera gertatu Bilbon. Bizkaiko hiriburuan militarren gehiengoak bat egin zuen Errepublikaren defentsarekin. Era horretan, uztailearen 20an Gasteizi eraso egiteko, militarrez, asalto-guardiez eta milizianoz osatuta eta Vidal Munarriz teniente koronelaren aginduetara zegoen zutabea antolatu zen. Talde hori uztailearen 24an heldu zen Legutiora, eta topo egin zuten bertara heldu berriak ziren

3. <http://sanchobeurko.atspace.com/> [azken kontsulta: 2008-11-10]. Liburuaren egileak Josu Aguirregabiria eta Guillermo Tabernilla dira eta lanaren izenburua: *El frente de Álava. Parte primera: Del 18 de julio a la batalla de Villarreal*. Lana 2006an argitaratu zen.

tropa nazionalekin. Zauriturik utzi ez zuen tiroketa luze baten ondoren, errepublikazaleak Otxandion eta Ubidean babestu ziren eta matxinatuak Gasteizen. Hurrengo eguneko gertaerak hasi berria zen gerraren gogortasuna iragarri zuen. Hegazkin batek Otxandio bonbardatu zuen: gutxienez 84 hildako utzi zituen, horietatik 25 baino ez ziren soldaduak eta 45 haurrak izan ziren. Beraz, agerian dago bonbardaketaren helburua: errepublikazaleen morala ahultzea biztanleria zibila beldurtuz.

Hurrengo egunetan finkatu ziren azaroaren bukaera arte bi aldeek okupatu zituzten posizioak. Errepublikazaleei dagokienez, Garellanoko militarrek Tantaibakarreko maldetan jarri ziren, asalto-guardiak Otxandioko kanposantu inguruan eta miliziano ezkertiarrek Motxotegiko gainean; abertzaleek, bitartean, Gorbeiako gailurra hartu zuten. Frankistak, aldiz, 24an bertan sartu ziren berriro Legution eta hurrengo asteetan pixkanaka-pixkanaka indartu zuten goarnizioa 600 lagun inguru eduki arte⁴. Borrokak hasi zirenean Ricardo Iglesias teniente koronela zen frankisten burua. Errepublikazaleen iritziz ez zen matxinatuen oso aldekoa, baina gero erakutsi zuenez, profesional trebea zen. Defentsa-lanek, gainera, Goiaín eta Urbina hartu zituzten Legutio defendagaitz bilaka ez zedin. Ondorengo egunetan, Gopegi, Murua eta Zestafe okupatu zituzten Francoren aldekoek. Gotortze-lanak egiteko, inguruko herrietako zibilak erabili zituzten, baita gau-zainketak egiteko ere. Edozein kasutan, alde batekoek, zein bestekoek, ez zuten soldadu nahikorik fronte jarraitu bati eusteko, eta herri eta tontor garrantzitsuenen defentsa presatzeari ekin zioten. Borrokaren gunerik garrantzitsuenak inguru honetatik urruti zeuden egun haietan: Madril aldean, alde batetik eta Gipuzkoako kostaldean, bestetik.

Legutioko ingurua, bereziki Nafarrete eta Elosua herririkak, baita Gorbeiako maldak eta Elgeko mendilerroa ere, pasabide garrantzitsuak izan ziren gerraren aurreneko hilabeteetan bi norabideetan. Batetik, Gasteizko errepublikazaleek Bizkaira ihes egiteko eta, bestetik, lurralde honetako matxinatuen aldekoek eskualde lasaiagora heltzeko. Nafarreteko apaizak, Txomin Jakakortaxarenak, kontatzen duenez, ugari izan ziren toki hauek aukeratu zituztenak aldaketarako eta berak batzuei zein besteei laguntzen zien. Trafiko hori geldiarazteko, matxinatuek herririk herri ibiliko ziren patruilak eratu zituzten. Jakakortaxarena bera atxilotu eta Gasteizera eraman zuten eta ia-ia fusilatu zuten (Jakakortaxarena, 1990). Inguruko biztanleek arazo bat baino gehiago izan zituzten familia eta

4. Flandes Errejimentuko konpainia bat eta metrailadore sail bat, San Marcial Errejimentuko konpainia bat, Arabako Erreketearen 5. konpainia eta Mendiko 2. Errejimentuko bateria bat (Martínez Esparza, 1949).

Edonola ere, Burgoseko San Marcial errejimentuko historialean emandako datuen arabera, talde horretako konpainia bat baino gehiago aritu ziren euskal frontean borrokan. Irailaren 20an 2. batailoiak Eskoriatza inguruan hartu zituen posizioak, ziur aski Alonso Vega-ren agintepean; urriaren 5ean 4. batailoiko hiru konpainia Legutiora abiatu ziren. Azaroan, 3. batailoia egon zen sektore horretan (beharbada 4. batailoia txandakatu ondoren), eta 3. batailoia hori izan zen Legutioko borroketan parte hartu zuena, gudarien erasoak gelditzen, 12. konpainiak domina kolektiboa jaso zuen ekintza horretan erakutsitako kemenagatik. Sortu berria zen 6. batailoiak, azkenik, Legutioko pinudiaren okupazioan parte hartu zuen. *Historial del Regimiento de Infantería San Marcial nº 7*, s.f., 5. eta 6. or. Eskerrak eman nahi dizkiet Gasteizko Arakako kuarteleko Gutiérrez Salguedo jeneralari eta Balero komandanteari, dokumentazio hori eta Flandes errejimentuari buruzkoa inolako arazorik gabe ikuskatzen uzteagatik.


ganaduak frontearen bi aldeetan banatuta zituztelako⁵. Are pasarte larriagoa gertatu zen Elosuan: urriaren 20an, herriko semea zen anarkista bat bertaratu, hamaazpi lagun kamioi batera igoarazi eta Ollerieta inguruan fusilatu zituen hurrengo goizean (Flores, 2002: 119-120).

Legutioko erasoaren prestaketa

Gasteizetik Durangora doan errepidearen 16. kilometroan dago Legutio, eskuin eta ezker aldera mendixkez inguratuta. Horietako batzuk gudarien menpe zeuden: Jarinto, Mendigain eta Garrastegi. Erasoerako emandako arrazoien artean komunikaziorako oso zentro inportantea zela argudiatu zen, Bilbo, Durango eta Arrasaterako errepideen bidegurutzean zegoelako. Bizkaitik eta Gipuzkoatik joanez gero, berriz, Gasteizko giltza zen.

Legutioko erasoaren zio nagusia, ordea, Madrilen gainean zegoen presioa arintzeko asmoa izan zen, Errepublikako Gobernuaren aginduz, baita herritarren morala altxatzeko nahia ere. Haren prestaketa Ciutat kapitainaren eskuetan egon zen, Ipar Armadako Estatu Nagusiaren burua zen militar hau. Eraso hasi baino egun batzuk lehenago, Llano de la Encomienda jenerala heldu zen Santanderrera. Ipar Armadaren buru izendatu berria zen, baina ez dirudi erasoaren proiektuan esku hartu zuenik, ezta gauzatu zuten indarren zuzendaritzan ere.

Iparraldeko Frontearen eraso orokor moduan pentsatu zen: Asturiasen, Oviedo eta Leon erasotuz, Santanderren Espinosa de los Monteros eta handik Mirandara hurbilduz, Euskal Armadarekin bat egiteko bertan. Horretarako, euskaldunek Gasteiz eta Langraitz Oka hartu beharko zituzten. Izan ere, Miranda komunikazio-gune garrantzitsua zen, Madritetik Irunera doan trenbidea ebakiko baitzuten era horretan. Arrakasta izanez gero, Errepublikaren tropek Aragoi aldera joko zuten, Ekialdeko (Katalunia) eta Erdialdeko (Madril) Armadekin elkartuz.



1. irudia. Francisco Ciutat-ek marraztutako *Plan de Cooperación Estratégica* delakoaren mapetako bat. Archivo Histórico del Partido Comunista de España.

5. Archivo General de la Administración (AGA), 7/381.

Zenbait historialarik beste iritzirik azaldu arren, Agirre lehendakariari leporatuz erasoaren eta porrotaren errua, Ciutat-ek berak garbi uzten du noren ideia izan zen erasoaren prestaketa:

El Estado mayor del Ejército del Norte sugirió en noviembre de 1936 al Estado Mayor Central, un plan inspirado en estas líneas generales, plan que mereció la aprobación de EMC (Ciutat, 1978: 42).

Agirre lehendakariak nahiago zuen Gipuzkoako Zumarragaren aurkako eraso bat, eskualde hori berreskuratzeko eta ekintzari euskal kutsu handiagoa eskaintzeko⁶. Jaurlaritzaren Guda Zaingoaren asmoen arabera, erasoaren norabide nagusiak Gipuzkoako hegoaldera eta Nafarroara zuzendu behar ziren, Gasteiz eta Miranda ahaztu gabe. Ekintza horrek arrakasta izanez gero, gudariak Frantziako mugaraino eta Logroñoraino helduko ziren. Begibistakoa denez, ez egitasmo batak, ez besteak ez zuen aukera handirik gauzatzeko, baina hala ere, Ciutat-en planak aurrera egin zuen. Plan horrek ere zalantza ugari eskaintzen zituen ezezaguna zelako gudari eta milizianoen prestaketa militarra eta tropa nazionalen erresistentziarako gaitasuna. Edozein kasutan, lehendakariak bere gain hartu zuen operazioaren ardura politiko osoa.

Urriaren 7an, Jaurlaritza osatu ondoren, ahalegin handia egin zen Bizkaian armada eraginkorra osatzeko. Gasteizen aurkako eraso izan zen gaintitu beharreko lehen frogara. Armada berriak Bilboko Gran Vía desfilatu zuen azaroaren erdialdean eta indar-erakustaldi horrek errepublikazeleen gogoia berotu zuen: «A mí, y a otros ingenuos como yo, nos pareció que aquel “tremendo ejército” no encontraría resistencia en su marcha hacia Vitoria, que sería un paseo»⁷.

Erasoak 1936ko azaroaren 27an hasi behar zuen, baina eguraldi txarragatik 30era arte atzeratu zen⁸. Ciutat kapitainaren aginte-tokia Motxotegin jarri zen, Agirre lehendakaria bertara joan zen⁹, baita Josep Tumarov ere, Sobietar Batasunaren enbaxadatik bidalitako aholkulari militarra¹⁰. Operazioaren burua Aranbarri kapitaina izan zen. Eraso hiru zutabetan eratu zen. Lehena Ibarrola komandantearen zuzendaritzapean, bigarrena Cueto teniente koronelarenean eta hirugarrena Aizpuru komandantearen aginduetara. Cueto Legutioren aurkako eraso zuzena

6. Abenduaren 3ko, hots, Legutioko eraso hasi ondoren, Jaurlaritzaren Idazkaritza Orokorraren txosten berezi baten arabera, Gipuzkoako frankistek ez zuten atzeguardia babesteko neurri berezirik, ez zegoen lubakirik eta gutxi ziren barrikadak. Herritar asko tropa errepublikazaleak noiz helduko desiatzen omen zeuden, frankisten moralak asko jaitsi baitzen Bizkaian eta Madrilek erakutsitako erresistentziari esker. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE K 179/ C.4.


7. Beurko agiritegia, 15. kutxa, zenbakirik gabe.

8. Martínez Esparza jeneral frankistaren esanetan, erasoaldiak lehen atzerapen bat izan zuen beharrezkoak ziren armak eta munizioak banatu eta prest jarri arte eta Otxandioko eta Aramaioko errepideen artean bide bat eraiki arte Arlaban inguruko gudari eta milizianoak hornitu eta ebakuatu ahal izateko (Martínez Bande, 1980).

9. Agirreraren arabera bere eginkizun bakarra ikuskatzaile-lana izan zen, eta militarren esku utzi zuen operazioen zuzendaritza. Baina, porrotaren ostean, zenbait sektorek berari leporatu zitoten porrotaren ardura nagusia, (Aguirre, 1978: 36).

10. «...la iniciación de una organización sería para la preparación de un Ejército de maniobra que pudiera lanzarse a operaciones de cierta envergadura correspondió a una reunión celebrada por el Gobierno Vasco con los representantes soviéticos diplomático y militar, y el Mando por entonces del Ejército Vasco», Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-178, 24. karpeta.

gidatuko zuen, Ibarrolak Arlaban-Arrasateko lerroaren ingurukoa eta Aizpuruk Murgiarenean aurkakoa. Iturrien artean kontraesanak egon arren, gutxi gorabehera 30 batailo¹¹ (Murgia aldean 6 batailo, Legutio 13 eta Arlabanen 6), gehi metrailadoreen batailoia eta beste 4 batailo erreserban izan zituen: 20.000 bat gizonek, 25 kanoik eta 8 galdi blindatutako hartu zuten parte erasoaldian (Martínez Bande, 1980: 206-207), nahiz eta benetan 15 batailo eta 7.500 lagun inguru baino ez ziren aritu gatazka zuzenetan. Aurrez aurre 3.000-4.000 militar, erreketek eta falangistak izan zituzten (Ciutat, 1978: 46). Frankisten tropen ustezko ugaritasunaren ondorioz (Iparraldeko Fronte osoan 40.000 lagun zeudela pentsatzen zuten informazio-zerbitzuek), Murgiarenean aurkako eraso bertan behera gelditu zen arazoaren 29ko gauean, Agirreren iritzia¹². Operazioak, azkenik, azaroaren 30ean hasi ziren eta abenduaren 24 arte iraun zuten, nahiz eta egunik aktiboak lehenengoko laurak izan.



2. irudia. Legutio inguruko mapa garaiko komunikazio-bideekin. Beurko agiritegia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

11. Borroken une batean edo bestean honako batailo hauek aritu ziren: Itxasalde, Araba, Ibaizabal, Gordexola, Itxarkundia, Loyola, Amayur, Padura eta Irrintzi jeltkideak; Olabarri eta Euzko Indarra (EAE); Larrañaga, Roxa Luxemburgo, Perezagua eta Karl Liebknecht komunistak; Largo Caballero, Stalin, Rusia, UHP, Dragones, eta Castilla (JSU); Jean Jaures, Pablo Iglesias, Asturias, González Peña, Prieto eta Fulgencio Mateos sozialistak; Bakunin, Isaac Puente eta Sacco y Vanzetti anarkistak; eta Azaña-Guipúzcoa eta Azaña-Vizcaya errepublikazaleak.

Jaurilaritzaren txosten batean Legutio inguruan 8 batailo aritu zirela agertzen zaigu (Aguirre, 1978: 302). Gordexola batailoia, adibidez, abenduaren 3an heldu zen Areatzara eta 8an burutu zuen bere lehen eraso. Are gehiago Nafarreten zegoen Meabe batailoia txandakatu zuen, Meabe batailoia ezagutzen ditugun zerrendetan azaltzen ez denean. Beurko agiritegia, 14. kutxa, 59. karpeta.

12. Lehendakariak atzerapen hau jo zuen ofentsibaren porrota azaltzeko arrazoi nagusizat. Aizpururen zutabearen helburua Murgia hartu eta Gasteiz inguratzea omen zen, horrela eragotziz Legutio-raino frankisten laguntza. Eraso hori gauzatu ez zenez ezinezkoa izan zen Legutio hartzea (Chueca, 1997: 83). Edozein kasutan, zaila izango zen Aizpururen zutabeak berak bakarrik helburu horiek lortzea.

Erasoa

Azaroaren 30a

Egun horretako egunsentian Murua eta San Bernabé bitarteko frontean euskal oinezkoek eraso zabal bat egin zuten eta, ustekabean, Oketa eta Gasteizko urtegiak destakamenduak harrapatu zituzten. Era berean, Zestafe, Nafarrete eta Elosua herrixkak Eusko Jaurlaritzaren tropen esku geratu ziren. Eskuinean, nazionalen posizioak gogor zigortu zituzten eta hainbat posizio okupatu, hala nola Marotoko gailurra.

Kanoiek, bitartean, gogor erasotu zuten Legutio eta goiz osoa iraun zuen bonbardaketak¹³. Arratsaldean ekin zitzaion erasoari bi norabide desberdinetatik, Durangoko eta Bilboko errepideetatik, alegia. Ibilaldiak XIX. mendeko eta Lehen Mundu Gerrako lehen borroken itxura gogorarazten digu:

Era magnífico ver a todos los combatientes avanzar, erguido el pecho, esperando lanzarse sobre el enemigo, bajo un frío intensísimo, el terreno enfangado con la lluvia que caía, fusil en mano, banderas desplegadas, que abarcaba una línea de kilometro y medio, desde frente a Villarreal hasta Elosu¹⁴.

Errealitateak, ordea, berahala erakutsi zien gerraren beste aurpegia:

Al llegar a tiro frente a Villarreal, empezaron a disparar desde la torre de la iglesia con una ametralladora y de las casas colindantes que daban cara a nuestro avance. Nuestros gudaris avanzaron zigzagüeando para hacer menos blanco, ya que habían caído algunos heridos. A pesar de la subida de nivel que sufrió el riachuelo, algunos trataron de pasarlo, cayendo alguno y ahogándose, pero lo lograron.

Legutio zaintzen zuten soldaduen erreakzioak eta beraien ofizialen prestakuntza eta trebeziak gudarien porrota ekarri zuten. Are gehiago, egoeraren larritasuna ikusirik, Mola jeneralak Madrileko frontea utzi, Burgosera hegazkinez etorri eta Solchaga jeneralari eman zion Gasteizko tropen aginte zuzena (Iribarren, 1938). Horrela, Solchaga jeneralak hartu zuen bere esku Gipuzkoako eta Arabako tropen zuzendaritza. Horrekin batera, lehenengo laguntza bidali zuten: Flandes errejimentuko bi sail eta España zalditeria-errejimentuko 100 lagun joan ziren Legutiora, Gopegi ingurura Españaiko sail bat eta Bailén errejimentuko bi konpainia, eta Urbinara unitate desberdinetako hainbat konpainia eta bateria (Martínez Bande, 1938: 211).

Abenduaren 1a

Egun horretako borrokek bi gune nagusi izan zituzten, Legutioko herria eta Gorbeia azpiko herrixkak. Azken kasu horretan, frankistek Murua galdu zuten eta Gopegin babestu ziren. Legutio inguruan egun osoz borroka gogorak gertatu ziren, gudarien batailoi batzuek etengabe eta alde guztietatik presionatu zuten,

13. Ciutat-en esanetan artilleriaren lana ahulegia izan zen defentsa suntsitzeko (Ciutat, 1978: 45). Matxinatuen kontuetan, Legutiok 2.600 kanoialdi jaso zituen azaroaren 30etik abenduaren 14 arte eta hegazkinen 11 bonbardaketa, (Martínez Bande, 1980: 289).

14. Gabino Artolazabal kapitainaren testigantza. Beurko agiritegia 16. kutxa, 7-1 karpeta.

eta, nazionalen iritziz munizio pila bat alperrik galdu zen¹⁵. Albertia mendi gainetik hegoaldera zeuden tontor txikia eta Antelarrako pinudia¹⁶ hartu zituzten, herria menperatuta geratu zen. Mendebaldetik, erasotzaileek, Betsina hartu ondoren, Legutioko aurreneko etxeetara heldu ziren eta herria inguratu. Egun horretako baja kopurua oso handia izan zen, errepublikazaleen artean bereziki. Bitartean Gasteizko agintari militarrek laguntza antolatzen ari ziren, Alonso Vega teniente koronelak Gipuzkoara eramandako zutabearekin, Logroñotik ekarritako tropekin eta Zaragozara eskatutako marokoar tropekin¹⁷.

Abenduaren 2a

Legution zeuden indarrek etengabe jarraitu zuten borrokan, frankistek munizio-urritasuna sufrituz. Gudariak kanoi bat indargabetzea lortu zuten eta beste bat muniziorik gabe geratu zen. Errepublikazaleen erasoek, ordea, ez zuten koordinazioz eta batailoi edota konpainiaburuaren kemenaren eta ausardiaren ondorio ziren, baina eraginkortasun mugatukoak. Dena den, egoera kritikoa zen defendatzaileentzat, baina, egun berean, Alonso Vega-ren zutabeak euskal indarrek Legutioren inguruan osatutako hesia apurtu zuen¹⁸. Tropa nazionalak Urbinatik etorri ziren eta Betsina hartu ondoren, Antelarra-Txabolapekoko pinudian sartu eta bertan zeuden gudariaren artean sarraski handia egin zuten¹⁹. Era horretan, Gasteizko bidea libre geratu zen eta bertatik heldu ziren Legutioko defendatzaileek hain beharrezko zituzten munizio eta bestelako laguntzak. Herriaren defentsa indartuta geratu zen egunaren akaburako.

Abenduaren 3a

Egoerak aldaketa handia ezagutu zuen, euskal gudariaren eta milizianoen artean amore falta hasi baitzen nabarmentzen, desmoralizazioaren ondorioz. Izan ere, Jaurilaritzaren tropak askoz gehiago izan arren, ez zuten lortu Legutio hartzea, eta Alonso Vega-ren ekintza kontraeraso orokor baten atari moduan hartu zuten, Legutiorekin harremanak berrezartzeko saioa baino ez zenean. Horren guztiaren

15. Azaroaren azken egunetan, Jaurilaritzak 20.000 fusil eta 40 milioi kartutxo eskatu zizkion Errepublikako Gobernuari. Horrek, antza, Parisen erosi zituen, baina Jaurilaritza ez zen bere aurreneko lehenetsuna. Ez dakigu heldu ziren ala ez. Erasaldiaren lehenengo egunetan Jaurilaritzak ez zuen kezka handirik erakutsi munizioagatik, abendu hasierako eskaera garrantzitsuena ogi-irina izan zen eta hil horretako 20 arte itxaron behar da, berriro munizioaren eskaera nagusitzeko. Artea GE K178 C. 27.

16. Pinudiaren toponimoaren inguruan izen desberdinak agertzen zaizkigu. Mapa katastralean Charillapea baserria azaltzen da pinudiaren hegoaldean, baina gudariak Txabolapea deitu zioten, hori zelako baserriaren jatorrizko izena. "Kapitxiki" ezizena erabiltzen zuen gudari ohi batek aldiz (Nestor Goikoetxea mendizalea izan daiteke) Sabin Apraizi bidalitako eskutitzean pinudiaren benetako izena Antelarra zela jakinarazi zion. Beurko agiritegia, 17. kutxa, 46-2 karpeta.

17. Tetuaneko Erregularren 5. Tabor-a (batailoia). Erregularren tabor bakoitzak 400-500 soldadu inguru zituen. Mehalak, aldiz, 360 (Sánchez Ruano, 2004: 220).

18. Eraso honetaz baliatuta, batailoi errepublikazale bat Legution sartzen saiatu zen, laguntza-tropak izango balira moduan. Amarruak, ordea, ez zuen bukaera onik izan, defendatzaileak iruzurrak konturatu eta gogor erasotu zituztelako.

19. Martínez Esparzak bildutako datuetan, errepublikazaleek 300 hildako eta 20 prisionero izan zituzten. Ez du zehazten frankistek zenbat galdu zituzten (Martínez Esparza, 1949). Vargas-en ustez, Isaac Puenteko anarkistek 100 hildako inguru izan zituzten Albertiako maldetan, horietako asko preso hartu ondoren afusilatutak (Vargas Alonso, 1996). Eusko Indarra batailoioak ere hildako asko izan zituen. Preso errepublikarrek Gasteizera eraman zituzten eta zezen-plazan konzentratu oso egoera larrian, janik gabe (Saenz Del Castillo, 2005: 34).

ondorioz, koordinazio-arazoak areagotu egin ziren. Horrela, Ibarrola zutabeak kontraeraso bat gauzaten zuen bitartean pinudian, beronen erdia berreskuratuz, Legutioren aurkako eraso bertan behera geratu zen eta zenbait batailoi Areatza, Artea, Durango eta Bilbora erretiratu zituzten. Elosua-Nafarrete sektoreko tropek, ordea, kontraerasoa egin zuten Bergara tontorrerantz eta Betolatza herrirantz; ibilaldi azkar bat egitera behartu zuten Alonso Vega-ren zutabea, sortutako zuloak itxeko. Egun horretan bertan laguntza berria jaso zuten matxinatuek eta Zestafe herria hartu zuten marokoar tropek²⁰.

Abenduaren 4tik 24ra

Abenduaren 3tik aurrera erasoak asko moteldu ziren, nahiz eta artilleriak bere lana jarraitu eta noizean behin eraso gogorak egin. Horrela, abenduaren 8an Meabe batailoiak Nafarrete herria hartu zuen, hurrengo egunean Gordexolak galteko hegazkinen ekintzak eta marokoar tropen erasoaren ostean²¹. Abenduaren 12an beste eraso bat egin zen Legutioren aurka kanoi eta gurdi blindatuekin, eta beste bat Zestafe-Saimendi lerroaren aurka. 18an beste ahalegin bat egin zen Nafarrete-Zestafe inguruan eta berriro ere Legution, frankisten defentsak gainditu gabe²². Are gehiago, 21ean azken horiek kontraerasoari ekin zioten: Zestafeko ipar-sortaldeko mendixkak okupatu zituzten eta gudariek bertan utzitako arma eta tresneria ugari eskuratu zuten. Alferrikakoa izan zen egun bat lehenago Burgosko aldean errepublikazaleek izandako arrakasta Espinosa de Briciaren aurkako erasoan.

Gabon aurreko egunetan ofentsibaren azken mugimenduak, 22an Legutioren aurkako gudarien erasoek porrot egin zuten, eta, 23an, frankistek Elosua hartu zuten; 24an, Akosta eta Murua. Une horretatik aurrera eta martxoko eraso arte frontea ez zen gehiago mugituko.

20. Ekintza horretan, beste batzuetan bezala, matxinatuek hegazkinen laguntza erabakigarria izan zuten, nahiz eta Betolatza bonbardaketan hasieran matxinatuak izan ziren beraien hegazkinen biktimak (Saenz Del Castillo, 2005). Errepublikazaleek ere erabili zituzten hegazkinak, bereziki Gasteiz bonbardeatzeko.

21. Nafarrete galtzeak polemika berri bat sortu zuen, nahiz eta gerran zehar izandako beste askoren moduan, ixilean gorde. Gordexola batailoiko konpainia bat Nafarretera heldu zenean, Jakakortaxarena apaizak inguruko tontor bat hartzeko esan zien. Hurrengo egunean egingo zutela esan, baina egunsentirako tropa nazionalak bertan ziren herria erasotzen. Polemikaren ildo nagusiak, ordea, beste zio bat zuen; izan ere, itxura guztien arabera, Gordexola batailoiko agintari gorenak ez ziren Nafarretera joan, aurreko egunean Gorbeia gailurrean izan zirelako eskualdea ezagutzeko eta oso nekatuta jaitzi zirelako. Gogoratu behar da, bestetik, Gordexolak ez zuela ia borroka-esperientziarik. Frankisten eraso hasi zenean heldu zen Nafarretera Gimeno kapitaina, Horn konpainiako burua, baina berehala hil zuten. Tacho Arrien, Garaizabal konpainiako kapitaina izan zen agintea hartu zuena, baina zauritu zutenean «vino la desbandada general. Los veteranos siguieron combatiendo, protegiendo la retirada y finalmente 8 gudarís quedaron voluntariamente hasta evacuar los últimos y jamás se ha sabido de ellos, suponiendo fueron muertos en la lucha». Hildakoen eta zaurituen artean 102 lagun galdu zituen batailoiak. Beurko agiritegia, 14. kutxa, 59 karpeta.

Gordexola batailoiko buruak, Enrique Izak, porrotaren ardura etsaien gehiengo numerikoari, Estatu Nagusiaren gaitasun ezari eta Sabin Apraizen koldarkeriari leporatu zien, horrek batailoia Nafarretera eraman ondoren, tiroak hasi zirenean ihes egin zuelako. Era berean, bere ustez baja kopurua txikiagoa izan zen. Beurko agiritegia, 14. kutxa, 75-1 karpeta, 1974. urtea

22. Abenduaren 16an bilera bat egin zen Igorren eta bertan Saseta komandanteak Elgeta erasotzea proposatu bazuen ere, beste agintari militar guztiek Legutioren aurkako erasoarekin jarraitzea erabaki zuten. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-183-3.

Baja kopurua

Gatazken gogortasuna Iglesias teniente koronelaren txostenean ikus daiteke «resonaba en el espacio un verdadero coro de ayes de los heridos que, abandonados en la huida, pedían los recogiésemos; antes y las dos noches siguientes se oían los mismos lamentos y voces de socorro de las bajas hechas en los otros lados de la posición»²³. Ez du aipatzen jaso zituzten edo ez. EAeren batailoiko gudariak konpainiako kapitaina hil zuen matxinatua zauritu ondoren sendatzen saiatu ziren; hurrengo egunean, ordea, frankistek lehen konpainiako sekzio osoa fusilatu omen zuten pinudian²⁴. Posizio hori galdu ostean eta gudariak erretiratzean, Albertiako maldetan gora, inongo babesik gabe, matxinatuek tiroka jarraitu zuten, kupidarik gabe.

Euskal Armadak 800en eta 1.000ren arteko hildako kopurua eta 3.500 bat zauritu eta gaixo izan zituen²⁵. Iñaki Egañaren datuen arabera, Legutioko borroketan Euskal Armadak gerra osoan hildako soldaduen % 14 galdu zuen. Hildako gehien izan zituzten batailoiak, Egañaren zenbakietan, Largo Caballero, Perezagua, Olaberri eta Isaac Puente izan ziren (Egaña, 1998: 205). Baja guztiak ez ziren matxinatuen ekintzen ondorio izan. Pinudiko borroketan Larrañaga eta Isaac Puenteko milizianoek elkarri egin zioten tiro, lainoak itsututa (Egaña, 2000: 204). Izandako baja kopurua Euskal Armada osoaren % 16,7 zen, baina borrokatu zuten 30 batailoien % 25. Kontuan izan behar da soldadu guztiak ez zutela borrokatzen, atzeguardiako lanak egiten baitzituzten eta, ondorioz, baja kopuruak oso altuak zirela. Datu horiek ulertzeko aipatu daiteke, adibidez, Ebroko borroketan, 1938an kalte gehien jaso zuten Francoren armadako batailoiek soldaduen % 23,9 inguru galdu zutela, nahiz eta, kasu batzuetan, % 30 erraz gainditu. Ebroko muturreko adibide dugu Tetuango 4. taborrak soldaduen % 77,2 galdu zuela Kataluniako lurretan.

Frankistek, berriz, 31 hildako eta 224 zauritu izan zituztela adierazi zuten. Baina zenbaki hori Legutioko goarnizioari dagokio. Ez ditu kontuan hartzen laguntzera etorritako tropek izandako hildako eta zaurituak. Eskura ditugun datuek, osoak izan ez arren, kopurua nahiko altuagoa izan zela adierazten digute. San Millán-ek dioenez, abenduaren 2an, Alonso Vega-ren zutabeak 133 baja izan zituen, horietatik 28 hildakoak eta beste 109 (23 hildako) abenduaren 3an (San Millán, 1965: 13). Egun horietan, Flandes errejimentuak bakarrik 46 hildako izan zituen eta 142 zauritu²⁶. Badago ziurtasun osoz, baina kontu pixka batekin erabil daitekeen beste iturri bat, Gasteizko Santa Isabeleko kanposantuko hilobiratze-liburua²⁷. Horren arabera 251 lagun hilobiratu zituzten abenduan zehar kanposantu horretan gerra-zauriekin (badaude beste gutxi batzuk suzko armen ondorioz hildakoak, baina

23. AHM Z.N, VI Cuerpo de Ejército y 6ª División Orgánica, L.2, C.23. Aipua (Martínez Bande: 283).

24. Bi lagun bakarrik salbatu omen ziren, tenientea eta beldurrez desmaiatu zen gudaria. Beurko agiritegia, 15. kutxa, zenbakirik gabe eta Beurko, 1977: 76.

25. Euskal Armadak abenduan 6.182 baja izan zituen, %29,3 gaixotasunen ondorioz, %54 zaurien ondorioz eta %16,7 hilda. Azaroaren 30eko bajak gehitu beharko genizkioke horri. (Martínez Bande, 1980: 223, 315. oharra). Chueca eta Fernándezek 800 hildako aipatu dute. (Chueca, 1997: 82).

26. AAVV: *Regimiento de Infantería de Cuenca, nº 27. Historia del mismo, desde la fecha de su creación en 1633 (continuada por el regimiento Flandes)*. Vitoria, Original Manuscrito, s.f.

27. Libro registro de inhumaciones de cadáveres del cementerio de Santa Isabel.

frankistek fusilatutako en xura dute). 251 lagun horietatik, 22 inongo identifikaziorik gabeko pertsonen gorpuak ziren, milizianoak eta gudariak seguru asko²⁹. Badira baita San Quintin errejimentuko 4 hildako, beharbada Madrileko frontean hil eta Gasteizera ekarritakoak, dakigunez errejimentu horrek ez zuelako borrokatu Legutio gatazkan. 235 lagun geratzen zaizkigu. Non hil ziren argitzen ez bada ere, (Urduñan hildako soldadu baten kasuan bakarrik aipatzen da non hil zen), logikoa da pentsatzea Legutio inguruan hil zirela; 29 marokoarrez gain²⁹, askoren kasuan gainera, Flandes, España, San Marcial edota Bailén taldeetakoak zirela zehazten baitu liburuak. Gasteizko Seminarioan instalatutako odol-ospitaleak, bestetik, gainezka egin zuen (urtarrilean zenbait zauritu hil egin ziren) eta autoritate militarrek instalazioen ahalmena handitzea eskatu zuten eta 1.200 ohe ezartzera heldu ziren (Saenz Del Castillo, 2005: 7). Datu horiek, beraz, bi aldeetako baja kopuruaren tarte txikitu egiten du, 1.000 hildako inguru errepublikazaleek, 230 altxatuek; baina edozein kasutan, aldea oso nabarmena da errepublikazaleen kaltean.

Legutioko herria

Erasoaldiaren eragingune garrantzitsuena Legutio herria bera izan zen. Gerra Zibila ikertu duten gehienek ahazten duten elementuetakoa da hau, hain zuzen³⁰. Uztailaren 26an udala desegin zen eta gestora bat izendatu, batzokia itxi eta zenbait lagun atxilotu edota urrundu zituzten, susmagarriak zirelako³¹. Abuztuaren 1ean udal-idazkariak herriko mutilak (Elosua, Nafarrete eta Ollerietakoak salbu) eraman zituen Gasteizera matxinatuaren armadak errekluta moduan deitu ondoren (3 boluntario baino ez ziren egon herri osoan eta 8 iheslari, Amerikan zegoen gazte bat eta beste 7 lagun). Azaroaren 30ean ebakuatu zituzten azken zibilak Gasteizerantz, nahiz eta ez den argi geratzen denek egin ote zuten alde³². Edonola ere, uztailetik abendura bitarteko borrokek 14 urteko neskato baten heriotza utzi zuten, (airez egindako bonbardaketa baten ondorioz, gerraren biktima zibil bakarra). Udalak berak, abenduaren 28 arte ez zuen erabaki agiritegia Urbinara eramatea (gero Gasteizera), «ya que no existe edificio alguno dentro de esta villa que ofrezca seguridad y no es posible que continúe en la Casa consistorial por la forma en que se encuentra». Garraiatzen ari ziren bitartean Albertiatik

28. Baziren beste 19 gorpu identifikatu gabe, baina militarrek zirela adierazten du, eta batzuetan errejimentuaren berri ematen da.

29. Liburuan bertan 22 marokoar azaltzen dira hildakoen artean eta orri solte batean kanposantuko sail batean beste 7 marokiak daudela adierazten da.

30. Huidobro-ren lana (2005) da herri bateko gertaerei lehentasuna ematen dien lan bakarrenetakoa.

31. Udaleko Akta Liburua (A. L.) da gure informazio-iturri nagusia.

32. "El Tebib Arrumi" eta Martínez Esparza-ren ustez biztanle gehienak herrian geratu ziren. Enciso-k ez du kontua argitzen, baina matxinatutako zaurituen zainketari buruz hitz egiten duenean hauxe dio: apaizaren neskamea, Francisca Albizuri, izan zela herrian zenbait hilabetez gelditu zen emakume bakarra. Hilaren 11 arte medikuaren bi arreba, Pilar eta Epifania Ortiz de Zárate, bertan egon ziren lan bera egiten, «y algunas otras» (Enciso Viana, 1937: 73). Akta Liburuaren arabera, abenduaren 31n biztanleen % 90 herritik kanpo zegoen (A. L. 1937-06-13). 1937ko urtarrilaren 29an agintari militarrek herria erabat husteko agindua eman zuten.

Inguruko herrietan egoera desberdinak izan ziren, batzuk hustu egin zituzten, bereziki abertzaletasunaren aldeko auzotarrak eta beste batzuetan ezinezkoa izan zen bertatik ateratzea baimenik gabe. Herritarrek, gainera, gurdia prestatu behar izan zituzten soldaduak hornitzeko (Huidobro, 2005: 110-111).

tiro egin zioten bertan zeuden gudariak. Gasteizen babestu ondoren, udalaren kezka nagusia auzotarrei lana bilatzea izan zen «en vista de la miseria en que han quedado, ya que se han destrozado los 6 pueblos de que se constituye este municipio», eta udal ondasunak (mendi eta basoak) zaintzea³³.

1937ko apirilaren 7an, Molaren tropek frontea apurtu ondoren, alkatea eta udalbatzako kide batzuk herrira itzuli ziren «y dada la lamentable situación en que ha quedado el pueblo, se realizan gestiones a conseguir ayuda y se higienice el pueblo, antes de que vuelva el vecindario y se consiga lo haga cuanto antes para que pueda proceder a sembrar...». Apirilaren bukaerarako 100 familia inguru itzuli ziren, eta bizitza normalizatzen hasi zen, Nafarreten salbu (hutsik zegoelako maiatzaren bukaeran). Eraikuntza gehienak berreraiki beharra zegoen eta horretarako agintarien laguntza eskatu zen, baita goldaketan aritzeko beharrezkoak ziren idiak lortzeko ere. Gerra amaitu ondoren, Legutiok laguntza berezia izan zuen *Regiones Devastadas* programaren barruan.

Porrotaren arrazoiak³⁴

Realmente hemos de confesar que la operación sobre Villarreal y Vitoria debió haber tenido un resultado más brillante a pesar de todas estas circunstancias desfavorables y algunas de ellas superiores a nuestras fuerzas (Aguirre, 1978: 35).

Porrotaren lehenengo arrazoa, baina ez bakarra, sorpresa-elementuaren huts egitea izan zen, frankisten hegazkinek euskal gudarien mugimenduak antzeman zituztelako. Sorpresa faltan, beharbada, beste elementu batzuek ere izan zuten eragina, hala nola ofizial batzuen leialtasunik ezak³⁵ eta biztanleriaren moralala altxatzeko Euskal Armadak Bilbon egindako disimulorik gabeko desfileak (Amilibia, 1977: 114). Zigoitiko alkateak ere informazio zehatza eman zien matxinatuei, eta horren ondorioz, baja ugari sorrarazi zituzten errepublikazaleen artean³⁶. Erasoaren egitasmoan egindako azken orduko aldaketek ere nahasketa ekarri zuten. Ezin ahaztu, bestetik, eguraldi txarrak, euriak, elurrak eta lokatzak ez zutela utzi Ciutat kapitainak planeatutako mugimendu-gerra gauzatzen.

Beste arrazoi bat, erasoaren prestaketa eskasa izan zen. Horniketak gaizki antolatuta zeuden frontearen inguruan³⁷. Armamentuaren aniztasunak —fusilen artean 5 kalibre desberdin edukitzeak, adibidez— ez zuen lagundu Euskal Arma-

33. 3.557 zuhaitz bota zituzten errepublikazaleek Legutio frontea izan zen bitartean.

34. Hainbat egilek aipatu ditu porrotaren arrazoiak, besteak beste Juan Pablo Fusik (Garitaonandia eta Granja 1987: 48).

35. «Algún oficial de Estado Mayor avisó a la Zona Nacional antes de partir hacia Bilbao su resolución de ayudar cuanto fuera posible a los planes de Mola» (Aznar, 1940: 300).

36. Alkatea eta bere laguntzailea atxilotu egin zituzten eta 1937ko urtarrilean fusilatu (Flores, 2002: 132-133).

37. Erasoaldiaren egunetan izandako arazoez gain, kexa asko egon ziren batailoiek ez zutelako janari nahiko jasotzen, horrek, hotzarekin batera, moralarentzat dituen ondorioekin (Seidman, 2002: 131). Banatutako estalkiak zuriak edo grisak ziren, kamuflaje gutxikoak eta gudariak ez zuten tresna egokirik lubakiak egiteko edota zuhaitzak botatzeko (Pujana, 1991: 49-63). Osasun Saileko kideek Bilbon arropak errekisatu omen zituzten heltzen ari ziren zaurituentzat (Flores, 2002: 132). Intendentziako buruek, beraien aldetik, batailoietako kideen jana, arropak eta mantak gorde eta beren etxeetara eramaten zituztela argudiatzen zuten. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-178, 18. karpeta.

daren eraginkortasunean. Zer esan arma askoren kalitate kaskarrari buruz?³⁸. Borroken deskribapenek disparatu ezin zuten metrailadore edota kanoiei buruzko aipamen ugari dituzte, baita tiroen norabidea neurtzeko tresnarik ez zuten moteren ingurukoak. Munizioa ez zen izan hasieran, beste une batzuetan bezala, arazoa Legutioko erasotzaileentzat; bai, ordea, defendatzaileentzat zenbait momentutan. Dena den, neurririk gabeko erabiltzeak munizioaren urritasuna ekarri zien hirugarren egunetik aurrera errepublikazaleei. Zaurituen zainketari dagokionez, Ubideako gaixoen ospitaleak ez zuen higie-ne-baldintza egokirik³⁹, Urkiola eta Otxandioko ospitaleek ezin izan zituzten zauritu guztiak hartu, eta askok Zornotzara edo Durangora joan behar izan zuten sendatzera⁴⁰.

Agintari gaituen falta alde guztiek aipatu zuten. Hona hemen salaketa horren lekuko bi. Lehena, Ibarrolarekin borrokatu zuen EAEko gudari batena dugu:

De la ofensiva de Villarreal ¿qué podríamos decir que no haya sido dicho? Fue un alarde de falta de sincronización entre las fuerzas que intervinieron y de desatención o desnudez artillera y sobre todo aviatoria por el Estado Mayor⁴¹.

Bigarrena, San Millán komandantearen azterketa dugu (1965: 16):

La organización del mando en el ejército rojo era sencillamente espantosa. No existía hasta justo empezar la ofensiva un alto mando completamente definido y tampoco un escalonamiento del mando bien definido. El mando en sí de las unidades tipo batallón estaba más ligado a las jefaturas de los Partidos Políticos a que pertenecían que al mando militar propiamente dicho, creando un desconcierto tal en el ya desconcertado conjunto rojo, que fue causa principal de su fracaso.

Errepublikaren alde mantendu ziren ofizial nagusiak poliziatik zetozen eta gehienek ez zuten esperientzia militar zuzenik, Ibarrolak salbu. Beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren 1936ko abenduaren 4ko dekretuak mobilizatutako ofizialak ziren, eta soldaduen artean mesfidantza sortu zuten. Ausardia faltaren adibide nabarmena Ibarrola zutabearen jokaera dugu. Izan ere, Maroto, Albertia eta pinudia hartu ondoren ez ziren gehiago mugitu, nahiz eta inguru horretako borroketan kemen handia erakutsi⁴². Cueto-k Legutio eta Gasteiz arteko errepidea mozteko aukera izan zuen eta ez zuen behar bezala aprobetxatu. Are gehiago, Legutioren aurkako eraso zuzenek helburuak ez lortzeaz gain, ehunka hildako eta zauritu ekarri zituzten. Sabin Apraizen ustez, ordea, erasoaldiaren porrotaren arazoia frontearen zabaltzean datza, horrek zutabeen buruek kontrol zuzena galtzea ekarri zuelako. Elementu horrek hutsegiteak ugaritu egin zituen, hala nola Txabolapean eta Betxinan hartutako posizioak fortifikatu ez izana. Bizirik dauden soldaduen artean, ofizial profesionalen kontrako iritziak orokorrak dira:

38. Lehendakariaren esanetan, Errusiatik jaso zen material militarren kargamentu bakarra bigarren mailakoa izan zen, metrailadoreek gaizki funtzionatzen zuten eta fusilak oso zaharrak ziren (Krimeneko gerrakoak esan zuten) eta blindatuak, akatsez josiak. Militar aholkulariak, aldez, ondo prestatuta zeuden (Aguirre, 1978: 22). Antzeko iritzia zuen Sanjuan komandanteak (1974).

39. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea, GE K 40/ c.12.

40. Abenduan berrantolatu zen Osasun Zerbitzua batailoi bakoitzak zituen mediku-taldeen gain, higie-ne-dispensarioak sortu ziren. (Muñoz Rivero, 1996).

41. Beurko agiritegia, 15. kutxa, zenbakirik gabe. Antzeko iritzia zuen PSOEko kide zen Arbella-k: «En una operación de esta categoría hacían falta también mandos de categoría». (Aberasturi, 1978: 88).

42. Beurko agiritegia, 15. kutxa, zenbakirik gabe.

En resumen, que la artillería no tiró ni un solo cañonazo contra los camiones de refuerzos y de suministros que durante toda la noche estuvimos viendo pasar desde el pinar. No vimos un solo zapador para fortificar el pinar, ni nadie de transmisiones que nos permitiera estar en contacto con los demás. No funcionó la aviación. La Sanidad en general y el sistema de Hospitales en particular, fracasó total. No había ni un solo suero antigangrenoso, lo que hizo morir a muchos en los Hospitales de Sangre de Urkiola⁴³.

Armada Errepublikazalearen zaletasun taktikoek ere ez zuten askorik lagundu. Izan ere, Legutioz gain, errepublizaleek zenbait porrot izan zituzten ondo babes-tutako hiriguneak hartzen saiatu zirenean. Oviedo eta Toledo dira kasurik ezagunenak, bietan erakutsi zen erasorako gaitasun eskasa. Arrakasten artean 1937ko abuztuan Aragoiko frontean hasitako erasoaldia dugu: bertan borroka askoren ondoren, Belchite herria hartu zen. Hantxe mantendu ziren harik eta 1938ko martxoaren 10ean marokoar tropek berreskuratu zuten arte (De Diego, 1939), baina herria hartzen pasatutako denbora eta gastatutako indarrek kalte handia eragin zion Armada Errepublikazaleari. Militar errepublikazale batzuk eraso-ekintzen aldekoak ziren; beste batzuek, aldiz, jarrera defentsiboak hobesten zituzten (Martín-Blázquez, 1938: 189 eta 282). Defentsari emandako garrantziaren ondorioz, Euskal Armadak ez zuen alde batera utzi Legutio eta ia babesik gabe zegoen Gasteizera zuzendu. Ekintza horrek, gauzatzea zaila izan arren, euskal tropen urritasuna zela medio, beste fronteetatik tropa ugari ekartzera behartuko zuen Mola jenerala. Euskal Armadaren nagusiek, azkenik, gutxietsi egin zuten arerioaren indarra eta, bereziki, Legutio defendatzeko gaitasun eta kemenaren (Beldarrain, 1991: 58)⁴⁴.

Euskal Armada batailoetan antolatuta egoteak, goi-mailako loturak alboratuz, ez zuen asko lagundu, erasotzen ari ziren taldeen arteko komunikazioa eragotzi baitzuen (Amilibia, 1977: 116). Espainiako Gobernuak brigadetan antolatzeko agindu zuenean, Agirre lehendakariak uko egin zion agindua betetzeari 1937ko apirila arte. Edozelan ere, gogoratu behar da Armada Errepublikazale brigadak ez zirela oso eraginkorrak izan, hasieran behintzat, Bruneteko borroketan agerian geratu zenez; bai, ordea, armada frankistaren dibisio klasikoa. Buzón teniente koronelak salatu zuenez, batailoien aginte bikoitza (militarra eta intendentzia) beste oztopo bat izan zen armadaren eraginkortasunerako⁴⁵.

Batailoien lerratze ideologikoak eta iritzi kontrajarriek, aldiz, ez bide zuten borroka-garaian eragin handirik izan, nahiz eta mesfidantzak agerikoak izan (Blasco, 1983: 32). Horretaz gain, ez zen falta izan alderdi bereko kideen arteko liskarrik borrokan erakutsitako gaitasun ezarengatik eta horren ondorio kaltegarriengatik. Batailoiek ez zituzten onartzen erraztasunez beste alderdi bateko edota, bereziki, militar profesionalen aginduak. Horren lekuko dugu, Iza jeltzaleak, Goredolako buruak, 1974an idatzitakoa: «Ridículo Estado Mayor (grupo de militares españoles inútiles y zánganos, que ni merecieron algunos ser fusilados por Franco». Euzko Gudarostearen aholkulari nagusia zen Saseta bera ere kritikatu

43. Isaac Puenteko Félix Padín-en iritzia (Azkue, 2004: 202).

44. Ordurako Toledon eta Oviedon antzeman zitekeen kemen hori. Francoren armadak izugarritzko ahaleginak egin zituen fronte guztietan inguratutako bere soldaduak babesteko (Seidman, 2002: 171).

45. Avilako Agiritegi Militarra, DR L853 C8, aipua, Alpert, (1989: 85) eta García Volta, (1975: 61).

zuen («un capitán de intendencia del ejército español se (puso) a dar órdenes desde dentro del P.N.V.»)⁴⁶. Iza berak kritika gogorrek jaso zituen azaroaren 27an, eraso hasi aurretik, Gordexolak Ermura joateko agindua ez zuelako bete eta batailoiko kide batzuek istiluak sorrarazi zituztelako Eibarreko Intendentziaren jantokietan. Antzeko jarrera izan zuen Perezagua batailoiak⁴⁷.

Euskal Armadaren diziplina-maila urria hizpide izan zen, hain zuzen, Legutioko porrota zela-eta. Kritikak azaldu aurretik, bidezkoa da gogoraraztea gudari eta milizianoek nahiko diziplina-maila altua erakutsi zutelako, baja asko izan arren, borrokan jarraitu zutelako, ihesari eman gabe, kasu gutxi batzuetan salbu. Baina, oro har, ofizial eta sarjentu boluntarioak ez ziren gai diziplina errespetatzeko, ezta betearazteko ere. Horren erakusle dugu, besteak beste, Gordexolaren erretiratzea Nafarreteko porrotaren ostean, inongo baimenik gabe. Armada Errepublikazaleko kideek maiz ahazten zuten osotasun bateko partaideak zirela eta bakoitzaren zerregina ezinbestekoa zela plan orokorrekin arrakasta izan zezaten. Horrela, zenbait batailoik ukatu egin zitoten mandoari aginduak emateko ahalmena, bereziki nazionalen erasoaren arriskua antzematen zenean. Isaac Puente batailoiko kideek, adibidez, gogor borrokatu zuten Albertian (hildako asko utziz bertan), baina atsedena hartu ondoren, ez zuten bete nahi izan berriro armak hartzeko jasotako deia eta Kode Militarraren ezarpenaren mehatxua behar izan zen koartelean aurkezteko (Blasco, 1983: 37 eta Vargas Alonso, 1996: 274)⁴⁸. Martínez Esparza-ren esanetan, azaroaren 30eko gaualdera Rosa Luxemburgo eta Larrañaga batailoiko komunistek Legutio erasotzeko agindua jaso zuten, baina ukatu egin ziren eta hurrengo egunsentian egingo zutelako adierazi zuten (Martínez Esparza, 1949). Deigarria, da, ildo horretan, nola saiatu ziren gatazka aztertu duten idazle frankistak gudari eta milizianoen borrokarako kemena bereizten, bigarrenak gutxietsiz. Baieztapen horrek, ez du bat egiten, ordea, hildako eta zaurituen kopuruekin, batailoiko ezkeriarrek jeltzaleek baino baja gehiago izan baitzituzten. Idazle horiek, gainera Legutioko operazioa Agirrerren ardura zuzena zela azaldu zuten behin eta berriz⁴⁹.

Gudarien esperientzia falta ere elementu garrantzitsua izan zen, Legutio izan zelako beraien lehen eta azkeneko eraso garrantzitsua. San Juan komandanteak azpimarratu zuenez, ez da nahikoa plantilla batzuk osatzea eta gizonak taldeetan biltzea armada bat edukitzeko. Armada prestatu egin behar zen eta ekintza txikietan erabili boluntarioak, eta derrigorrez joandakoak, benetako soldadu bihurtzeko. Baina, tamaina handiko eraso egitea erabaki zen (Sanjuan, 1974: 138). Kontuan izan behar da, gainera, Espainiako derrigorrezko soldaduska-sistemak salbuespen asko zituela eta gutxi zirela soldaduskara joan eta bertan 12 hilabeteko instrukzio-epea osorik egiten zuten kintoak (Duval, 1938: 58). Behe-mailako ofizial

46. Beurko agiritegia, 14. kutxa, 75. karpeta.

47. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-178, 18. karpeta.

48. Abenduaren 7an Montaud komandanteak ohar bat bidali zion Agirre lehendakariari esateko, Perezagua eta UHP batailoiek ez zutelako Nafarretera eta Elosura joateko agindua bete, eta ondorioz frontea babes eskasarekin utzi zutelako. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE k/78/ C. 16.

Hil horretako 19an Leandro Carro batailoiko hainbat konpainiak frontea utzi zuten, batailoiko buruaren baimenarekin, baina sektoreko buruaren aginduen kontra. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-64-13.

49. Adibide bat (Ruiz Albeniz, 1941: 17).

eta ofizialorde askok inongo prestakuntza militarrik ez izatea, eta talde horiek dira, hain zuzen, armada ororen bizkarrezurra, ere horren ondorio zen. Espainiako kuota-sistemak (ordaintzea soldaduska laburra egiteko) eragotzi egiten zuen klase ertaineko gazteak konplementoko ofizial eta ofizialorde izatea (Beldarrain dugu salbuespen eskasetako bat). Esperientziadun sarjenturik gabe, soldadu arruntak ez dira talde bat osatzeko gai, eta hiltegrirako okela bilakatzen dira

Bide horretan, nabarmena da Euskal Armadari buruzko lan guztiak duten hutsuneetako bat: 1936ko urriaren 16an Jaurlaritzaren Guda Zaingoak 1932, 1933, 1934 eta 1935eko kinten mobilizazioa agindu zuenean hirurogeita hamabi orduko epea ezarriz, sailaren esku utzi zen gudariak zein guda-taldetara joango ziren. Praktikan, ordea, deitutako gazteek, nahi izan zuten ideologietako batailoetan integratu ziren. Era horretan, oso egun gutxitan milaka laguneko armada osatu zen. Orain arteko ikerketek, ordea, ez dute zehaztu zenbat izan ziren euren kabuz mobilizatu zirenak urriaren 16 baino lehen eta zenbatek hartu zituzten armak hala-beharrez⁵⁰. Are gehiago, Jaurlaritzak urriaren 22an eta abenduaren 1ean argitaratutako aginduek —kintoak koarteleetan aurkezteko aginduz— erakusten digute urriaren 16ko agindua ez zela erabat bete, bereziki 1932ko eta 1933ko kintei dagokienez⁵¹. Egile batzuek soldadu profesionalak eta derrigorrez joandakoak goraiatu arren boluntarioen aurrean, garbi dago batzuen eta besteen jarrerak desberdinak direla borrokatzeko orduan baldintza berdinetan.

Michael Seidman izan da armada errepublikazaleko kide askoren borrokarako kemen falta nabarmendu duen egilea. Horren ustez, 1936ko uztailean altxamenduari aurre egin zioten ezkerreko militanteen ausardiak ezkutatu egin du gizartearen gehiengoak erakutsitako epeltasuna. Boluntario asko, gainera, Errepublikako Gobernuak ordaintzen zituen 10 pezetan atzetik joan ziren borrokatzera. Derrigorrezko soldadutzak Armada Herrikoia giza hutsuneak bete baldin bazituen ere, maiz, arazo berriak sortu zituen; batetik, soldadu ugari desertatzen saiatzen zelako, bestetik, beren burua zauritzen zutelako. Beste batzuek ez zuten borrokatu nahi, eta beste aldeko soldaduekin hitzarmenak lortzen zituzten ahalik eta kalte gutxien egiteko elkarri. Euskal Herrian ez dugu anaitasun kasu asko ezagutzen, baina 1936ko urriaren Mola jeneralak agindu bat zabaldu zuen bere tropei gogoraraziz ez zutela utzi behar Bizkaiko eta Gipuzkoako fronteetan lasaitasuna nagusitzen (Martínez Bande, 1980: 190). Legutioko erasoaldian, agerian geratu denez, ez zen horrelakorik gertatu, baina azken erasoak gertatzen zen une berean, Gabon aurretik,

50. Kasu batzuk ezagunak dira. Araba batailoi jeltzalearen lehenengo bi konpainiak boluntarioz osatu ziren, beste biak, ordea, kintoz gehienbat (Azkue, 2004: 139). Rebelión de la Sal batailoia ere kintoz osatuta zegoen, horietako asko, gainera, karlistak ziren (Vargas Alonso, 2002: 129). Vargas-ek lan horretan aipatzen duenez, batailoi askok, ideologia desberdinekoak, osaketa bikoitza zuten. «núcleo de voluntarios y movilizados». Gerraren oroimen-lanetan kasu guztiak aurki daitezke. Jose Maria Etxaburu ondarroarrak Frantziara ihes egin zuen 1936ko irailean (Etxaburu, 1989), Jose Azpiroz berastegiarrak, «noiz deituko beldurrez» egon ondoren, falangistekin borrokatu zuen, karlistekin bat ez egiteko (Azpiroz, 1989). Basilio Pujana zeanuritarrak eta bere 3 anaiak Ibaizabal batailoian borrokatu zuten matxinatuen aurka (Pujana, 1991). Tomas Gerrikagoitia bolibartarrak, azkenik, bere kintaren deialdia itxaron zuen 1937ko apirilean (Gerrikagoitia, 2000: 67).

51. Ikusi Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa.

Urriaren 23ko txosten baten arabera: «Algunas personas han intentado abandonar el territorio sometido a la legalidad para esquivar el cumplimiento de la orden de movilización y quintas dictado últimamente». Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea K 67/ C.4.

Eibarreko frontean, Amuategui batailo sozialistak prentsa-trukaketa hitzartu zuen armada frankistarekin⁵².

Ciutat-en ustez, erreserba falta izan zen porrotaren arrazoietakoa bat, baina, haren esanetan, erreserba horiek egon bazeuden, Santanderreko mugan zeuden Asturiaseko tropak, euskal lurraldean sartzeko Agirrek eman ez zuen baimenaren zain (Ciutat, 1978: 46), Ipar Armadako hiru eskualdeen (Asturias, Santander, Euskadi) arteko koordinazio falta eta mesfidantza erakutsiz. Erreserba faltak, Ciutat-ek berak aurreikusi behar zuen faktorea, ondo azaldu zituen erasoaldiak arrakasta izateko zituen hutsuneak, ezinezkoa zelako Gasteiz hartzea hain soldadu gutxi-rekin⁵³. Legution bertan, euskal batailoiek (atseden hartzeko gauez erretiratu ostean) hurrengo egunean berriro erasora jo behar zuten morala galdutako soldaduekin, askotan, ezagutzen ez zuten beste toki batean. Frankistak, aldiz, gai izan ziren tropa berriak ekartzeko eta, asko izan ez arren, funtsezkoak izan ziren defendatzaileen morala indartzeko eta erasotzaileena hondatzeko.

Datu hauek guztiek Estatu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Sailaren gehiegizko baikortasuna uzten dute agerian. Izan ere, soldaduen prestaketa eskasak, borroka-esperientzia ezak eta diziplina onartzeko zailtasunak ezinezko egi-ten zuten Legutiokoa bezalako erasoaldi-egitasmo zabalak arraskataz gauzatzea.

Erasoaldiaren emaitza eta ondorioak

Erasoaldiaren jatorrizko asmoa Madrilen gaineko presioa arintzea izan zen. Oso iritzi eta datu kontrajarriak daude gai horren inguruan. Euskal errepublikazaleek, porrota onartzeaz gain, erasoaldiaren eragin hori azpimarratu zuten⁵⁴. Pedro Urrutikoetxea gudariak, gure ustez era okerrean, ez zuen inongo zalantzarik

La España franquista suspendió todas sus operaciones en los demás frentes y concentró todos los refuerzos en Vitoria, soldados de tres ejércitos, la Legión extranjera, Regulares Africanos, cañones modernísimos, suministrados por Italia y Alemania⁵⁵.

Beste batzuen ustez, ez zuen eragin nabarmenik izan⁵⁶. Iritzi horretakoak dira, besteak beste, Francoren prentsa-arduraduna, Lojendio (1940: 173), Maurice Duval jeneral frantsesa⁵⁷ eta Martínez Bande historialari militarra⁵⁸. Martínez Esparza jeneral frankistak, dena den, aitortu zuen honako hau: «El mando nacional había dispuesto que varias unidades tipo batallón que habían pasado el Estrecho el 1 de diciembre y que iban destinados al frente de Madrid se orientaran en dirección a Vitoria» (abenduaren 4an bi batailo iritsi ziren). Frantziako informazio militarren zerbitzuek, ordea, Arabara bidali zituzten marokoarren bi batailoiak Zaragozatik etorri zirela adierazi zuten txosten batean (Jiménez de Aberasturi,

52. Abertzaletasunaren Agiritegia, Artea GE K 00064/ C.13.

53. Erreserben mantentzea funtsezkoa da edozein gerreten (Seidman, 2002: 171).

54. "El ataque cumplió su cometido de descongestionar en cierta medida el frente de Madrid" (Amilibia, 1977: 116).

55. Urrutikoetxea, 1984: 48.

56. Martínez Bande, 1980: 219 eta Martínez Esparza, 1949.

57. "El éxito puramente local de los vascos en Villarreal no tuvo consecuencias". (Duval, 1938: 108).

58. Martínez Bande, 1980: 219. Dena den, zenbat egilek azaldu du Francoren armadaren gaitasun ona nabarmentzeko eta errepublikarren huts egiteak azpimarratzeko duen joera Bandek. (Meer, 1992).

1990). Egia da Mola jeneralak Madril utzi eta Burgosera etorri zela, baina bera bakarrik, eta ez dirudi Solchaga-k eskatutako laguntza Espainiako hiriburua inguratzen zuten tropetatik sortu zenik. Madril hartzea zen matxinatuen helburu nagusia eta bertan erabili zuten beren armadaren talderik onenak.

Rojo jeneral errepublikazalearen agiritegian gordetako oharrek adierazten dutenez, Legutioko erasoaldiak iraun zuen bitartean Madrilen aurkako erasoek indarra galdu zuten, abenduaren 3tik aurrera bereziki, baina berak ez ditu bi gertakizunak lotzen⁵⁹. Eten horren arrazoiak, beharbada, zerikusi gutxi zuen Arabako gertaerekin⁶⁰. Izan ere, azaroaren 22rako Madrileko Unibertsitate Hiria hartzeko ahaleginak porrot egin ondoren, Brigada Internazionalen etorrerak eta indar nahikoren faltak Franco jenerala eraso gelditzera bultzatu zuten Cervera historialariaren ustetan (2005). Hala ere, iritzi horrek ez du bat egiten azaroaren 29an alboak hobeto babesteko egindako erasoarekin (Lojendio 1940: 173), eta, bereziki, abenduaren 13tik aurrera berriro indartu ziren erasoekin. Seidman-en ustez, Madrilen aurkako erasoak geratzeko erabaki hori 1937ko otsailean hartu zen, A Coruña errepideko eta Jaramako erasoaldiek porrot egin ostean (Seidman 2002: 139). Beraz, posible da Legutioko erasoaldiak eraginen bat edukitzea Madrileko frontean. Ezin ahaztu, azkenik, Legutioko erasoaldia bukatu arren, matxinatuek asko indartu zutela Iparreko frontea soldadu kopurua nabarmen igoz, 3.550etik ia 10.000ra 1937 urtearen hasieran. Nonbaitetik ateratako soldaduak izango ziren, batzuk kinta berrietakoak eta beste batzuk beste fronteetatik etorritakoak.

Legutioko porrotak Jaurlaritzaren ahalmen autonomoaren ezintasuna ekarri zuen, Madrili laguntzeaz gain, armada eta botere propio baten erakusgarri izan nahi zuelako erasoak. Izan ere, eta Ipar Armadako Estatu Nagusiaren buruaren testigantza araberak, Estatu Nagusiak Asturiaseko eta Santanderreko tropen laguntza eskaini zion Agirre lehendakariari erasoak sendotasun handiagoa izan zezan. Lehendakariaren erantzuna ezezko biribila izan omen zen (Ciutat, 1978: 44). Ekintza horrek Eusko Jaurlaritzaren eta Ipar Armadako agintarien arteko mesfidantza politikoa areagotu zuen. Agirre lehendakariak Ciutat-i leporatu zion porrotaren ardura, komunistekin zituen loturak nabarmenduz. Munizio falta izan zen, Agirreraren ustez, erasoaldia bertan behera uzteko arrazoiak⁶¹. Komunistek, beren aldetik, Agirreraren aurkako desprestigio-kanpaina gogor bat hasi zuten, Armada Errepublikazale guztiaren aginte militarren batasuna lortu nahi baitzuten. Horren ondorioak nabarmenak izan ziren:

Hasta hace cosa de veinte días [abenduaren 24 arte] se respetaba la organización, el trámite y el procedimiento seguidos hasta la fecha, es decir, aquella administración del ejército que corría a cargo del Gobierno Vasco, que lo había puesto en pie. Pero a partir de esa fecha, comenzó la Jefatura del ejército del Norte a obrar por cuenta propia, invadiendo aquel terreno que hasta ahora, de hecho, ha correspondido al Gobierno Vasco mediante su Consejero de Defensa⁶².

59. AHN. Fondos privados. Archivo Vicente Rojo.

60. Beldarrainek aitortzen du Legutioko eraso beranduegi egin zela, Madril arintzeko, «quizás con un retraso de 15 días» (1991: 49).

61. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea, GE K178 c-27.

62. Viaje de consejeros Gobierno Euzkadi a Valencia- enero 1937. Abertzaletasunaren Agiritegia. Artea GE-178, 24. karpeta.

Legutioko porrotak, azkenik, defentsa-mentalitatearen sorrera ekarri zuen. Harrezkero, Euskal Armadak ez zuen eraso gehiago egin eta frankisten ahaleginaren aurkako defentsa antolatzeari ekin zion. Jaurlaritzaren hitzetan, aldiz, erasoen falta munizioaren urritasunaren ondorio zuzena zen (Aguirre, 1978: 303-304). Defentsa-mentalitatea indartzeko soldaduen desmoralizazioak ere izan zuen pisua; izan ere, beraiek jabetuta zeuden gauza bat zela bizia ematea helburu baten alde, eta beste bat, bizia alferrik galtzea, norberaren agintariek ez zekitelako batailoit bat maniobratzen.

Erasoaldiak izan zituen bere irakaspenak ere: Euskal Armada trebatu zuen, nahiz eta oso salneurri garestian egin (Aberasturi 1978: 151). Michael Seidman-en ustez, hala ere, 1937ko martxoaren arte frontea lasai egon zen eta horren ondorioz, ofizialak ez ziren saiatu soldaduak diziplinatzen (2002: 137). Kontrako iritzia azaldu zuten Luis Ruíz de Aguirre-k, «(se) disputa con el calendario para lograr organizaciones que modifican toda la vida civil en interés de la guerra. Continúan incesantemente la formación de unidades, la fortificación...» (Beurko, 1977: 82) eta Miguel Amilibia sozialistak, «la dura lección de Villarreal les había enseñado mucho, los batallones perfeccionaron su instrucción, tenían una oficialidad más seleccionada y realizaban frecuentes supuestos tácticos». Horren ondorioz dugu 1937ko martxoan Molaren erasoaldiak ia hiru hilabete behar izatea Elgetatik Bilbora heltzeko, nahiz eta askosaz ere baliabide gehiago eduki, bereziki artilleriari eta hegazkinei dagokienez, baina baita soldadu kopuruari ere, ofizialen prestaketari edo hornikuntzari erreparatuz gero.

Amaiera

Legutioko erasoaldiak eragin nabarmena izan zuen bertan parte hartu zuten artean, militarrek izan, edota inguruko herrietako zibilak izan. Espainiako beste fronte batzuetan gertatu ziren enfrontamentuekin konparatzen dugunean, gatazka mugatua izan zela konturatzen gara, soldadu kopuruari, iraupenari, bajari edota erabilitako armamentuari erreparatzen badiegu (San Millán, 1965: 15). Are txikiagoa Lehen Mundu Gerrako enfrontamentuekin alderatuz gero (britainiarrek 24.000 lagun galdu zituzten Somme-n goiz bakar batean). Baina borrokan aritu zirenak ez ziren heriotza-tresneriako pieza hutsak, pertsonak ziren, aurpegi eta ideia propioekin eta galera hondamendia izan zen lagun eta ahaideentzat. Horregatik, behar bada, 1977an Itxarkundiako kideak Legution bildu zirenean, Lizaso komandanteak batailoiko hildako guztien izenak aipatu zituen, banan-banan, bizirik geratu zirenen oroimenean hobeto gordetzeko.

Borrokak oroitzeak isla izan zuen prentsan eta liburuetan, baita gatazka gogorarazteko eraikitako monumentuetan ere. Lehena 1937. urtean altxatutako monolitoa izan zen Gasteizko errepidearen ondoan, 1963an, Legutiotik Aramaiora doan bidean dagoenak ordezkatu zuena. Azken hori, oraindik zutik dago, baina sinbologia frankista galduta. Legutioko Guardia Zibilaren koartelaren ondoan dago karlistek jarritako oroigarria, baina horrek 1937ko martxoko erasoaldia du erreferentzia nagusia⁶³. Galtzaileek jarrera desberdinak izan zituzten. Nik dakidala, ezkerreko

63. Karlisten oroimen-toki garrantzitsuena Isuskitza mendia izan zen. Irailaren 15ean bertan eraikitako *Via Crucis* edo kalbarioa egin, gailurrean meza entzun eta bazkaria egiten dute Landan Espainia guztitik etorritako karlistek (Huidobro, 2005: 132).

taldeek (anarkistek, komunistek, sozialistek edo errepublikazaleek) ez dute inoiz ospatu Legutioko erasoaldiaren urteurrenik. Bi arrazoi daude, nire ustez, jarrera hori ulertzeko. Lehena, gerran eta gerraostean jasotako errepresioak asko ahuldu zituela talde horiek, bai kide kopuruari dagokionez (bizirik geratu ziren asko gainera ez ziren itzuli Euskal Herrira), baita erakundeen sendotasunari dagokionez ere. Frankoren heriotzaren ondoren indartsu atera ziren sozialistek eta komunistek ez zuten gerra gogoratzeko asmorik, trantsizio politikoak eskatzen omen zuen adiskidetze-politikaren ondorioz.

Abertzaleen kasuan, jarrera desberdina izan zen, ez hainbeste biktima-papera aldarrikatu nahi zutelako, zenbait egilek ikerketa gutxi eginda arinkeriaz esaten duten moduan⁶⁴, baizik eta gerra ostean egitura sendagoak mantendu zituztelako eta gerrako urteek pisu nabarmena izan zutelako egituratze horretan⁶⁵. Legutiori dagokionez, jeltzale talde batek 1964-65 inguruan hilarri bat jarri zuen Larragotiko basoan erasoaldian hildakoen alde, «Ire azkatasunaren alde jarduena 1936-1937» esaldiarekin eta mezak ospatu zituzten isilean hurrengo urteetan. Franco hil ondoren Itxarkundia batailoiko jeltzaleak 1977ko urrian bertan bildu ziren eta beste hilarri bat jarri zuten gerra ostean eraikitako urtegiaren ondoan. Hilabete geroago, Legutio eta Urrunagako bide zaharrean afusilatu eta bertan lurperatu zituzten 15 gudariren gorpuak atera eta Legutioko kanposantura eraman zituzten. Hurrengo urteetan horrelako ekintzek garrantzia galdu zuten, eta EAJko kide garrantzitsua izan zen Jose Maria Otxoa de Txintxertuk aitortu duenez, EAJk ez du ezer egin gudarien eta Francok preso hartutako euskaldunen alde 1976tik aurrera⁶⁶. EAEko kideak izan dira Legutioko erasoaldiaren oroimena ondoen gorde dutenak, Albertiako gailurrean jarritako oroitzarria urtero uztailearen hasieran bisitatuz. «Atzoko eta gaurko gudariak» omentzeko erabiltzen du Ezker Abertzaleak ekintza hori.

Bibliografia

- AAVV (d.g.): *Regimiento de Infantería de Cuenca, nº 27. Historia del mismo, desde la fecha de su creación en 1633 (continuada por el regimiento Flandes)*, Original Manuscrito, Gasteiz.
- Aguirre y Lecube, J. A. de (1976): *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin*, Editorial Axular, Donibane Lohizune.

64. Itxarkundiako Lizaso komandanteak 1977ko omenaldian hitz hauek esan zituen: "Hor dago besteek jarritako harri hori ("nazionalEEK" jarritako monumentuaz). Bainan anaien arteko borroka izan zen. Ondo gogoratzen naiz nola gauean, trintxera batetik bestera, anaiak hizketan jarduten ziren". *Deia*, 1977ko urriaren 4a.

1978ko Gudari-Eguna Larragoitiko mendixkan ospatu zen, Legutianoko iparraldean. Bertan izandako mezan, Serafin Esnaola apaiz abertzaleak zera esan zuen: "el mayor bien que el hombre puede tener es la paz, la convivencia entre distintos criterios. (...) aquella gente que perdió en la guerra a sus familiares guardaba un profundo dolor, pero sin odio". *Euzkadi*, 98, 1978ko urriaren 19a, 30. or."Se celebró el día del gudari en Villarreal de Álava".

65. Jeltzaleek bazuten, gainera, ezkerreko indarrek ez zuten elementu bat beren arteko harremanak mantentzeko eta gerraren oroimena ez ahazteko, hildako gudarien aldeko mezak. Amurrión, adibidez, Legutianon hildako Araba batailoiko gudarien aldeko mezak 1937an bertan hasi ziren, herria frankisten esku egon arren. *Euzkadi* 54, 1977ko abenduaren 15a, 13. or.

66. *Berria*, 2004ko urriaren 24.

- , (1978): *El informe del presidente Aguirre al Gobierno de la República. Prólogo y notas de Sancho de Beurko*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Aguirregabiria, J. eta Tabernilla, G. (2006): *El frente de Álava. Parte primera: De la sublevación militar a visperas de la batalla de Villarreal*, Ediciones Beta, Bilbo.
- Aizpuru, M. (2001): "Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jeltkideak XX. mendearen lehen herenean", *Uztaro*, **39**, 53-61.
- Alpert, M. (1989): *El ejército republicano en la guerra civil*, Siglo XXI, Madrid.
- Azkue, K. (2004): *Araba, oi Araba! La lucha de Araba por la libertad de Euskal Herria*, Elkar mcccgraphics, Bilbo.
- Aznar, M. (1940): *Historia militar de la guerra civil española*, Editorial Idea, Madrid.
- Azpiroz, J. (1989): *Gogoz kontrako pausoak*, Auspoa-Etor, Donostia.
- Beldarrain Olalde, P. (1991): *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*, Edición del autor, Bilbo.
- Cervera Gil, J. (2005): "Ciudad en lucha. La batalla de Madrid", in AAVV (arg.) *La guerra civil española mes a mes*, Biblioteca El Mundo, Madrid, 7-13.
- Ciutat, F. (1978): *Relatos y reflexiones sobre la guerra de España*, Forma, Madrid.
- Chueca, J. eta Fernandez, L. (1997): *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*, Egunkaria, Lasarte-Oria.
- De Diego, C. (1939): *Belchite*, Editora Nacional, Bartzelona.
- Duval, M. (1938): *Enseñanzas de la guerra en España*, Editorial Española, Donostia.
- Enciso Viana, E. (1937): *Villarreal: su cerco y defensa*, Editorial Social Católica, Gasteiz.
- Etxaburu, J. M. (1989): *Neure lau urteko ibillerak*, Etor, Donostia.
- García Volta, G. (1975): *La campaña del norte (serie La Guerra civil española nº 4)*, Bruguera, Bartzelona.
- Garitaonandia, C. eta Granja, J. L. de la, (arg.) (1987): *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después*, EHU, Bilbo.
- Hernández Palacios, A. (1987): *Gorka. Gudari*, Ikusager ediciones S.A., Gasteiz.
- Huidobro Castaño, H. (2005): "La Guerra Civil española de 1936-1939 en Arrazua-Ubarrundia", *Sancho El Sabio*, **22**, 93-137.
- Iakorkortexarena, T. (1990): *Bizitzan bi goiasmo*, Kardaberaz, Tolosa.
- Ibarzabal, E. (1977): *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia.
- Iribarren Rodríguez, J. M. (1938): *Mola: datos para una biografía y para la historia del alzamiento nacional*, Librería General, Zaragoza.
- Jiménez de Aberasturi, J. C. (1990): *Colección documental para el estudio de la Guerra Civil en Euskadi procedentes de los archivos militares franceses. (1936-1937)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Lezamiz, J. eta Tabernilla, G. (2002): *Saibigain, el monte de la sangre*, Asociación Sancho de Beurko, Bilbo.
- Martín-Blazquez, J. (1938): *Guerre civile totale*, Les editions de Noël, Paris.
- Meer, F. de (1992): *El Partido Nacionalista Vasco ante la Guerra de España (1936-1937)*, Ediciones Universidad de Navarra, S.A., Iruñea.
- Pablo, S. de (2003): "La Guerra Civil en el País Vasco: ¿un conflicto diferente?", *Ayer*, **50**, 115-141.
- Pujana, B. (1991): *Deabruak ostutako urteak*, Auspoa, Oiartzun.
- Rivera, A. eta Ugarte, J. (1988): "La Guerra Civil en el País Vasco: la sublevación en Alava", *Historia Contemporánea*, **1**, 183-201.
- Rivera, A. (1990): "El origen de los poderes locales en la España nacional: el caso alavés", *Kultura*, **1**, 63-74.
- Rojo, V. (1967): *Así fue la defensa de Madrid*, Ediciones Era, México D. F.
- Ruiz Albeniz, V. (1941): *En Alava hubo un Villarreal*, Biblioteca Infantil. La reconquista de España, Madrid.

- Saenz Del Castillo Velasko, A. (2005): *Gorriak ikusi. Arabar Gerra zibilaren Kronika*, Argitaratugabeko ikaskurteko lana, Gasteiz.
- San Millan Martin, V. (1965): *Villarreal: defensa y contraataque gloriosos: (noviembre-diciembre de 1936)*, Delegación Provincial de asociaciones de Alava, Vitoria.
- Sánchez Ruano, F. (2004): *Islam y guerra civil española. Moros con Franco y con la república*, La España Moderna, Madril.
- Ugarte, J. (1990): "Lehen frankismoaren agerpena Araban", *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, **17**, 209-229.
- Urgoitia, J. A. (2001): *Crónica de la Guerra Civil de 1936-37 en la Euzkadi peninsular*, Sendoa, Oiartzun.
- Vargas Alonso, F. M. (1996): "Anarquismo y milicias de la CNT en Euskadi", *Vasconia*, **24**, 259-299.
- , (1998): "Guipuzcoanos en las milicias de ANV durante la Guerra Civil (1936-1937)", *Bilduma*, **11**, 81-108.
- , (2002): "El ejército de Euzkadi de la constitución del Gobierno Vasco a la batalla de Legutiano de Araba", in J. A. Urgoitia (arg.), *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*, Sendoa, Oiartzun, 113-160.

